


ANIMA PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA



- Zer da Anima?

Anima Android eta iOS sistema operatiboetan dohainik deskargatzeko aplikazio bat da. Aplikazio honen bidez, mugikorreko kamera erabiliz hainbat produkturen (janaria eta kosmetikoak) bilgarriak ingurumenarekiko izango duen inpaktua erakusten du, eta produktu hori ekoizteak eragiten duen kutsadura ere bai. Gainera birziklatzeko modu egokiak eta produktu batzuen alternatiba ekologikoagoak erakutsiko ditu.

Proiektuak aurrera egiten badu, ahalik eta gehien garatzea izango da gure helburua: informazio gehiago eta zerbitzu fidagarriak eskaintzea, aplikazioa ahalik eta intuitiboena izatea eta abar.

Gaur egungo ingurumenarekiko kezka dela eta informazioa baliagarri eta erraz bat eskainiko du aplikazioak, gaur egungo gizarte kontsumistak duen jarrerarekin jarraitzen badugu etorkizun zail bat izango dugu aurretik, eta uste dugu proiektu honek gauzak aldatzeko nahia piztuko duela, eta kontzientziazioa bultzatuko duela.

Aukera on bat ikusi dugu proiektua garatzeko, izan ere ez dago informazioa hau eskainiko duen modu edo baliabiderik, eta kompetentzia maila oso baxua da.

